

Abadiñon, 2004.eko uztailaren 23an

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua,
Henrike Knörr euskaltzainburuordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Beñat Oihartzabal, Iker sailburua,
Andres Urrutia, Jagon sailburua,
Patxi Altuna,
Adolfo Arejita,
Miren Azkarate,
Jean Louis Davant,
Patxi Goenaga,
Andres Iñigo,
Emile Larre,
Txomin Peillen,
eta Piarres Xarritton euskaltzainak,

Juan Jose Zearreta, kudeatzailea, Pello Telleria, idazkariordea, eta Mikel Gorrotxategi Onomastika batzordeko idazkaria, zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak:

– Patxi Ondarra.

– Pello Salaburu, ahala M. Azkarateri

Batzarra goizeko 10,10ean hasi da Abadiñoko Udaletxearen batzar aretoan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

1. Adolfo Arejitari ongi etorri

Euskaltzainburuak aurreko bilkuran Larresoron Andolin Eguzkitzaren hutsunea betetzeko hautatu zen euskaltzain berriari, Adolfo Arejitari, ongi etorria egin dio, Euskaltzaindian lan egiteko bere gogoko batzorderen bat hautatzera gonbidatuz.

2. Abadiñoko alkatearen agurra

Javier Uriarte jaunak, Abadiñoko Alkateak, Euskaltzaindia bildua dagoen aretora heldu eta Akademiako kideak agurtu ditu, Abadiñoko herriarentzat holako bilkura izatea ohorea dela azalduz. Instituzioaren izenean, euskaltzainburuak alkateari eskerrak adierazi dizkio emandako erraztasun eta laguntza guztiengatik.

3. Gai ordena aldatzea

Bilkura hobeki antolatzeko, bezperan Zuzendaritzan erabaki bezala, J. Haritschelharrek eguneko gaien ordena aldatzea proposatu du, 12etan atsedeen-etena egingo dela iragarritz.

4. Akta onartzea

Ekaineko batzarraren akta onartu da, horri Andres Iñigok aurkituriko huts batzuk zuzenduta.

5. Eskuarteakoak

5.1 Augustin Zubikarai euskaltzain ohorezkoaren heriotzaren berri eman da, uztailaren 12an gertatua. Euskaltzaindiari Juan Jose Ibarretxe lehendakariak eta Xabier Retegi Eusko Ikaskuntzako lehendakariak doluminak adierazi dizkiotela jakinarazi da.

5.2. Euskaltzaindiaren hurrengo bilera irailaren 17an, Lizarran, eginen dela iragarri da.

5.3. Antonio Tovar euskalari eta euskaltzain ohorezkoaren alarguna, Consuelo Larucea andrea, uztailaren 1ean hil dela eta euskaltzainburuordeak haren senideei doluminak helarazi dizkiola azaldu da.

5.4. Liburu berriak. Bilera bukatzean euskaltzainen artean Orotariko Euskal Hiztegiaren XV. tomoa eta *Euskera* 2003 2. separata (Euskaltzaindiaren Argitalpen eremua: Argitalpenetarako prozeduraz) banatuko direla iragarri da.

6. 2005.eko urterako aurrekontu egitasmoaren aurkezpena. Juan Jose Zea-rrera kudeatzaileak datorren urterako aurrekontu egitasmoa aurkeztu du, oraingo honek eta aurreko urteetakoek dauzkaten aldaketak alderatuz. Egitasmoen kostu ekonomikoak banan-banan xeheki azaldu ditu. Esan duenez, horiek ez dute zerikusirik ohiko batzorde akademikoen funtzionamenduarekin, hauek finantziazio ziurtatua dute eta.

Abuztuaren 13ra arte bulegoan lanean arituko dela esan du kudeatzaileak. Irailaren 3ra arte edozein euskaltzainek aldaketak zein gehiketak idatziz proposatzeko eskubidea dauka. Geroago helduriko zein ahoz egindakoak ez dira kontuan izango. Helduriko zuzenketa horiekin irailaren 17rako prestatu eta aurkeztuko dira behin betiko aurrekontuak.

J.L. Lizundiak, egitasmoen artean agiri diren desorekak azpimarratu eta proiektu berriek finantziazio aldetik bete beharko lituzketen baldintzak azaldu ditu.

Bukatzeko, J. Haritschelharrek oharrak egiteko azken data irailaren 3a dela gogoratu du eta Euskaltzaindiaren aurrekontua 3.300.000 eurokoa izango denez gero, gastuak horra egokitu eta murriztu beharra dagoela.

7. Hizkuntza gaiak

7.1.1. Gipuzkoako herri izendegia (3. zerrenda). **Goierrri**, aurreko bileran Onomastika batzordeak banatuari ez zaio idatziz inolako oharrak egin eta, beraz, ontzat eman da. P. Goenagak, ahoz, Zumarragako herritarren izenaz bere zalantzak agertu ditu. J.L. Lizundiak erantzun dio, *zumarragar* hitz horren lekukotasuna egiaztatuz.

P. Xarritonek onomastika batzordearen lanaren iraunkortasunaz galde egin du. J.L. Lizundiak ihardetsi dio, oraindik egiteko dauden zeregin behinenak gogoratu.

7.1.2. Gipuzkoako herri izendegia (4. zerrenda): Urola Kosta aurkeztu du Mikel Gorrotategik. *Bidania-Goiatz*-ri buruzko argitasunak eman ditu J.L. Lizundiak. Horri buruzko oharrak, idatziz, irailaren 3rako bidali behar direla gogoratu zaie euskaltzainei.

7.1.3. Onomastika batzordeak aurreko bilkuran aurkeztu zuen *Euskal Herria* ize-
na arau izateko proposamena, jaso diren oharrekin horniturik, berriz ekarri da, onar-

tzeko. Euskal Herriaren definizioaz eztabaidak izan dira. B. Oihartzabalek zazpi herrialdeen izenak jartzea proposatu du, adierazpen geografikoa emateko. Lehen punturako honelako testua onartu da: *Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa (Beherea eta Garaia) eta Zuberoa herrialdeak batera izendatzeko erabil bedi, ohikoa den bezala, Euskal Herria izena*. Orobat, Uriarteren Bizkaiko testu bat eranstea erabaki da, lekukotasun gehiago izan ditzan.

7.1.4. Udal ez diren biziguneeen herritarren izenak. Proposamena Mikel Gorrotxategik aurkeztu eta Jose Luis Lizundiak azaldu du. P. Xarrittonek eskaturiko argitasunak J.L. Lizundiak eskaini ditu.

7.2. Hiztegi Batua

M. Azkarateren gidaritzapean, helduriko oharrak ikusi dira. Alde batetik, X. Kintanaren azken oharrak aztertu dira, aurretik markaturiko baina gero, ahazturaz, azalpenekin hornitu gabeko hitz batzuei zegozkionak, *bakailaoketari* eta *bakero* hitzei eginko iradokizunak onartuz.

Ondoren, *b-berriz* zerrendako gainerako berba ohardunak aztertzeari ekin zaio eta *baliogo* hitzetik hasi eta *baltzuan hartu*-raino heldu da.

Bilkura 2,23an amaitu da.

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria